



MUSIKA ESKOLA

Etxarri Aranazko Udala
Kale Nagusia 10 (KP 31820)
Tef. 948460004
www.etxarriaranatz.eus
Info@etxarriaranatz.eus

ETXARRI ARANAZKO MUSIKA-ESKOLARAKO ALDI BATERAKO ETA LANALDI PARTZIALEKO AKORDEOIKO IRAKASLEAK KONTRATATZEKO LAN-POLTSA BAT PREMIAZ SORTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK (2019/2020 IKASTURTEA)

1.-. Xedea.-

Deialdi honen xedea da Etxarri Aranazko Musika Eskolarako aldi baterako eta lanaldi partzialeko akordeoiko irakasleak kontratatzeke lan-poltsa bat sortzea, urgentziaz (2019/2020 ikasturtea).

II.- Parte-hartzaileen baldintzak.-

Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa edo, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio, langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa. Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatu etako herritarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunek ukitutako estatu etako herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.

b) Hamasei urte beteak izatea eta nahitaezko erretiroa hartzeko ezarritako adina gainditua ez izatea.

c) Musikako titulua izatea, erdi mailakoa edo profesionala, edo eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean titulu hori eskuratzeko moduan egotea.

d) Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia izan ez izana, ezta diziplinako kaleratze bidez bidali izana ere.

f) Ez izatea inoiz kondenatua sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituagatik, epai irmoaren bidez

g) Euskara maila. Euskara maila modu hauetan kreditatu daiteke: Hizkuntz Eskola Ofizialaren Euskara Titulua (C1), EGA edo baliokide den beste titulu bat izatea. Titulurik eduki ezean izangaiak proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko, azaroaren 15eko 103/2017 Foru Dekretuaren 23. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

III.- Eskaerak aurkezteko epea.-

Hautapen prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak eskabidea Etxarri Aranazko udaletxean aurkeztu beharko dute (Nagusia, 10. Etxarri Aranatz), jendurreko ordutegian (astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 14:00etara) edota posta elektronikoen bidez (udala@etxarriaranatz.eus).

Eskaerak aurkezteko epea 10 egun naturalekoa izango da, enplegu-eskaintza Nafar Lansarearen atarian argitaratzen denetik aurrera.

Parte hartzeko eskabidearekin batera (I. Eranskina), izangaiak honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte: NANaren fotokopia, curriculum eguneratua eta baloratu beharreko meritu guztiak egiaztatzen duten dokumentazioa.

Interesatuak posta elektronikoko helbide bat eman beharko dute jakinarazpenetarako.

IV.- Behin-behineko eta behin betiko zerrenda.-

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Etxarri Aranazko Musika Eskolako lehendakariak ebazpen bat emango du onartutako eta baztertutakoen zerrenda onesteko, eta Etxarri Aranazko Udalaren iragarki-oholean eta web-orrian argitaratzeko aginduko du.

Izangaiak behin-behineko zerrenda argitaratu ondoko bi egun baldiodunen barrenean, erreklamazioak egiten ahalko dituzte eta okerrik egin badute, haiek zuzendu.

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, Musika Eskolako lehendakariak ebazpena emango du onartutakoen behin betiko zerrenda onartzeko eta hura argitaratzeko aginduko du.

V.- Epaimahai kalifikatzailea.

V.1.-. Epaimahai kalifikatzaileak honako kide hauek izango ditu:

- Lehendakariak: Silvia Marañón Chasco, Etxarri Aranazko alkatea. Ordezkoa: Maria Saez de Albeniz Bregaña, Etxarri Aranazko udal zinegotzia.

- Bokala: Lur Iosu Larraz López, Etxarri Aranazko Udaleko kultura zinegotzia. Ordezkoa: Arturo Carreño Mundiñano, Etxarri Aranazko kirol zinegotzia.

- Bokala: Amaia Ijurra Araña, Etxarri Aranazko kultur teknikaria. Ordezkoa: Udalak izendatzen duena.

- Bokala eta idazkaria: Lola Eslava Serrano, Etxarri Aranazko udal idazkaria. Ordezkoa: Maria Barkos Berruezo, Lakuntzako udal-idazkaria.

V.2.- Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta Patronatuko lehendakariari horren berri eman, baldin eta indarreko legediak abstenitzeko arrazoiak badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeko, inguruabar horietako bat gertatzen denean.

Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, jendaurrean agertuko da hori, izangai onartu eta baztertuen zerrrendekin batera.

V.3.-. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak.

VI.- Izangaiek alegatutako merezimenduen balorazioa.

Epaimahaiak izangaiek aurkezturiko merezimenduak baloratuko ditu, ondotik datorren baremoaren arabera baloratu ere. Merezimenduak agiri bidez aurkeztu eta egiaztatu beharko dituzte izangaiek eskabidea aurkezteko unean, eta eskabideari atxikita geratuko dira.

VI.1.- Laneko esperientzia (gehienez ere 6 puntu):

- Akordeoiko irakasle gisa, administrazio publikoen musika eskoletan edo kontserbatorioetan egindako zerbitzuak; ikasturte oso bakoitzeko, betiere irakasle gisa aritutako lanaldiaren arabera: 1 puntu.

Ikasturtearen zatiki bakoitzeko eta lanaldiaren proportzioan. Hilabete bakoitzeko: 0,125 puntu.

- Akordeoiko irakasle gisa zentro pribatuetan egindako zerbitzuak, ikasturte oso bakoitzeko eta lanaldiaren proportzioan: 0,6 puntu.

Ikasturtearen zatiki bakoitzeko eta lanaldiaren proportzioan. Hilabete bakoitzeko: 0,06 puntu.

VI.2.- Prestakuntza (gehienez ere 3 puntu).

- Goi mailako titulua izateagatik: 2 puntu.

- Goi edo erdi mailako titulua izatea beste espezialitate batean: 0,50 puntu.

- Pedagogiaren arloko titulua izateagatik, goi mailakoa edo erdi mailakoa: 0,50 puntu.

VI.3.- Beste meritu batzuk (gehienez ere puntu 1).

- Aurkeztu nahi diren beste merezimendu batzuk, akordeoi espezialitatearekin harremana dutenak eta izangaiek behar bezala egiaztatu baditu, baldin aurreko apartatuetan baloratu ez badira (kontzertu ematea bakarlari gisa, talde batean, prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea, argitalpenetan, etab.)

Epaimahaiak noiznahi eskatzen ahalko ditu lehiatzaileen merezimenduei buruzko argibideak eta datu osagarriak.

VII.- Hautaprobak gainditzen dituztenen zerrenda eta lanean hasteko deia.

Proben kalifikazioa amaiturik, epaimahaiak jendaurrean jarriko ditu probak gainditzen dituzten izangaien zerrendak, Musika Eskolako iragarki-taulan eta Etxarri Aranazko Udalaren webgunean, lortu duten puntuazio osoaren hurrenkeran, eta alegazioetarako bi egun naturaleko epea irekiko da.

Epea amaituta eta, hala dagokionean, alegazioak ebatzita, epaimahaiak Patronatuko lehendakariari gainditu dutenen behin betiko zerrenda bidaliko dio onetsi dezan.

Etxarri Aranazko Udalaren Musika Eskolan gertatzen diren premien arabera eginen zaie dei gainditu duten izangaiei, deialdi honetako oinarrietan ezarritakoarekin bat eta aplikatzekoak diren gainerako araei jarraituz.

VIII.- Zerrendaren kudeaketa.-

Deialdi honetan jasotako lanpostuetan langile beharren bat sortzen den bakoitzean, amaierako puntuazio osoaren ordenaren arabera (handienetik txikienera) deituko ditu izangaia Etxarri Aranazko Udalaren Musika Patronatuak.

Izangaia lan eskaintza egiten zaion egunean bertan onartuko du edo uko egin beharko dio (ezintasuna justifikatua denean), eta betiere, izangaia lanean hasteko egun eta ordutik behar bezainbesteko tartearekin.

Izangaia ez badu lan eskaintza onartzen edo ez badio uko egiten behar besteko tartearekin, harreman laboralari eta zerbitzuari hasiera emateko, automatikoki hurrengo izangaiari deituko zaio.

Lan eskaintza onartu eta lanean hasteko agertu ezean, edo harreman laborala formalizatzeko beharrezko dokumentazioa formalizatzeko agertu ezean, izangaia automatikoki baztertuko da zerrendatik, langileak behar diren hurrengo aldietarako

Lan eskaintzari uko egitea ez da izanen zerrendatik baztertzeko arrazoi eta ez da inolako zigorrik ezarriko, baldin eta justifikatua bada, motibatua eta arrazoizkoa.

IX.- Errekurtsoak.

Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekurtsoetako bat aurkez daiteke, hautara:

- Berraztertze errekurtsoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.

- Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

- Gora jotzeko errekurtsoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, jakinarazpen hau jaso eta hilabeteko epean.

I. ERANSKINA

ESKABIDEA

ETXARRI ARANAZKO UDALA

Izen-deiturak, (adinez nagusia), NANA edo agiri
baliokidea:
Jaioteguna:.....; Sorterria:.....;
Egungo helbidea (kalea, zenbakia, eskailera, solairua)
Herria..... Posta kodea telefono mugikorra
..... telefono finkoa , helbide elektronikoa
.....

AZALTZEN DUT:

Etxarri Aranazko Musika Eskolak akordeoi irakaslea izateko lanpostu bat premiaz betetzeko deialdian onar nazazula eskatzen dudala. Lanpostua aldi baterako izango da eta lanaldi partzialekoa.

Ez dudala karguan aritzea galarazten didan eritasun edo akats fisiko edo psikikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplinako espediente bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik kanpo utzia izan, eta, era berean, ez nautela eginkizun publikoak betetzeko gaitasunik gabe utzi.

Badudala deialdian adierazten den titulazioa.

Deialdian eskatzen diren baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den unean betetzen ditudala.

- Eskatutako euskara-maila egiaztatzen dut.
- Hautazko euskara proba egin nahi dut.

Baimena ematen dut inskripzio fitxan eman dudana posta elektronikoaren helbidea erabil dadin jakinarazpenak egiteko.

Horrenbestez:

Eskabide hau onartu eta aipatutako deialdian parte hartzea eskatzen dut.

Etxarri Aranatz, 20....ko(a)ren.....(e)an.

(Sinadura)